

Gaur maiatzak 9, osteguna, mahai negoziatzailea izan dugu. Bertan akordio batera iritsi gara. Hori dela eta, 2013ko uztailaren 7-ko mamua atzean utzi dugu. Beraz, daukagun lan hitzarmena mantentzea bermatu dugu, hurrengo negoziatu arte.

Otsailaren 20-an STEE-EILAS-eko plataforma sartu genuen. Bertan, ondorengo puntu garrantzitsu hau eskatu genion enpresari.

"Haurreskolak- Partzuergoan indarrean dagoen 2008-2009ko Lan hitzarmenaren luzapenean datza: Garbi ikusten dugu hitzarmen hau negoziazio berrirako abiapuntua izateaz gain, denon lan baldintzen berme bihurtu behar dugula, alegia, bere eragina luzatu behar dela hitzarmen berria adosu arte, Lan erreformak zehazten duen ultraktibitatearin muzin eginez"

Lorpen hau lehenengo pausua besterik ez da, orain benetako lana hasten da, hots, 3. lan hitzarmenaren negoziazioa

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu Stee-eilas sindikatutik lan baldintza duinen alde lanean jarraitzen dugula, baita haurreskola publiko, doakoak eta unibertsalak izatearen alde ere



**DENON ARTEAN LAN BALDINTZAK
HOBE DITZAGUN!**

ARABA: Eulogio Serdán Kalea 5 (behea) 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90

araba@stee-eilas.org
bizkaia@stee-eilas.org
gipuzkoa@stee-eilas.org
nafarroa@stee-eilas.org

